

2002ko otsailaren 7 • XXII. urtea



Hiperaktibitatea, nola kontrolatu?

04

Nafarroako Haur Hiperaktiboen Senideen elkarte presidentea da Mª Jesus Torres elizondarra. Inguru honetan elkarte eta eritasuna ezagutzea nahi dute.



Lander Erkizia erremontelaria

28

23 urteko doneztebarrak urte terdi egin du profesionalean. Bere ustez, profesional gehiago aterako dira Doneztebetik, laxoan ongi ikasten delakoz.

03

Kalitateko turismoa gure baserrietan



MUEBLES A METS

Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537 • Fax. 948 631 443



Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak



*4.000 m²ko
erakusketa
mobleak
ikusteko*

*Larunbat
arratsaldetan
irekia*



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA SANEAMENDU MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366 • ELIZONDO



↓ Zeramikak



↓ Velux-ak



↓ Tximiniak

DATUAK...

• 1991an Joxepi Mihura eta bere senarrak Urruska baserria landetxe bihurtu zuten. Garai hartan ez zekiten landetxeak bideragarriak izanen ziren ala ez. Gaur egun euren bizia, landetxearen inguruan antolatu dute.

• 1999an Kalidadearen Ziurtagiria lortzeko aukera eman zieten Espainiako landetxeak. Baztanen firuk lortu dute ziurtagiria eta Joxepiren ustez «*laster hortzeren batek lortuko du kalidadeko "Q" zeinua*».



Joxepi MIHURA Urruska landetxeko arduraduna

«Egunero egiten dugun guztia paperean idatzi behar izan dugu»

Rakel GOÑI

Noiz hasi zineten kalidadeko ziurtagiria lortzeko dena prestatzen?

Landetxeen federakunde eta elkartetik 1997an, edo lasterrago, hasi ginen kalidadea lantzen. 1999an Espainia osorako delaldia egin zen, eta urte hartan ere 5 arau orokorrak bilzen zituzten eskuliburuak atera ziren. 2000.ean seigarren arau bat atera zuten, zuzendaritzari buruzkoa, eta honek, eskema guztiak hautsi zitigun. Etxean egiten genituen gauza guztiak, garbiketa, sukaldeko lanak eta abar, paperera eraman behar genuen. Hau da, lanerako metodo zehatza idatzi eta hori beti, zehazki segitu. Guk egiten genituen gauzak paperetan paratzea... arras zaila izan zen hasieran. Gero egin dugularik, landu dugularik, uste baino errexagoa zela konturatu gara.

Zer eskatzen zaio landetxe bateri kalidadearen "Q" a lortzeko?

Gehienbat, egiten duguna paperean jartzea da. Lanerako segurtasuna ematen digu, arras ona da beti segurutik ari zarelako. Bertzetik, niegun batez zerbaitengatik falta banaiz, es-

«Badira landetxe hobeak, zerbitzu hobeago eskainiko dutenak, baina ez dute guk dugun ziurtasuna»

kuliburu hartu eta dena prest dago edozeinek etxea eramateko. Egin behar ditugun gauzak zehazki-zehazki bete behar ditugu. Bonbilla bat funditu bada, ezin dugu hurrengo astetako utzi.

Zein diferentzia daude zuen landetxe eta "Q" a ez dutenen artean?

Elkartean aunitzek erraten dute: «*nik zu bezain zerbitzu ona eskaintzen dut*». Dudik ez dut egiten baietz, hala dela. Badira etxeak hobeak direnak eta zerbitzu hobeagoa eskaintzen ahal dutenak, baina ez dute guk dugun ziurtasuna. Ez dute finkatua lana nola egin behar duten. Guk garbitzeko metodo bat dugu, erreserbak egiteko metodo bat... denetako.

Zer da bultzatu nahi dena ziurtagiri hauekin?

Hainbertze landetxe gaude, ez bakarrik Nafarroan, Espainian ere. "Q" horrekin lortu nahi dugu bezeroak

izan dezan segurtasuna, berak espero dituen zerbitzuak ongi emanak izanen direla. Hemen ziurtagiria lortu dugunetik bi, etxe osoak dira. Anizko Jauregia eta Bozateko Lizardiko Borda eta gurea (Urruska baserria) logelaka eskaintzen duguna. Nik uste dut aunitz hurbiltzen garelako bezeroarengana, lotura handiagoa dugu etortzen zaigunarekin. Batzuk uste dute orain bezeroek gehiago exigituko digutela, baina ez da hala, zuk eskaintzen duzun zerbitzua ongi egin bada, nahikoa da.

Kalidadeko ziurtagiria lortu zenuenean zer sentitu zenuen?

Azaroan auditoria pasatu ginuelarik segidoan kezka gelditu zitzaigun, gairitu genuen ala ez jakin nahirik. Auditoreari galdetu genion eta segidoan erran zigun aprobatu genuela baina puntuazioa bi hilabete beranduago jakin dugu. Nire biziko esamenik zailena izan dela erran dezaket. Hemendik aitzin bi urtetik behin pasatuko dugu auditoria hori. Inspektzio bat pasako dugu baina ez dugu jakinen noliz, inspektorea turista bat balitz bezala etorriko delako.



BEGIRALE EUSKALDUNAK ETA ADITUAK BEHAR DITUZTE

Hiperaktiboen elkarteak bere lana ezagutzera eman nahi du eskualdean

Atentzio eskasiak sorturiko arazoak (TDAk) hiru ataletan banatzen dira: atentzio eskasi larria, ezinegona eta bultzadak. Haur batek honelako sintoma nabariak dituenean hiperaktiboa dela erran ohi da. Eritasan ezagun honi aurre egiteko ADHI elkarteak sortu zen 1999an Nafarroan. M^a Jesus Torres elizondarra da elkarteak presidentea, bere lana gurasoei laguntzea da. Ez omen dago TDAn aditurik, eta familiek ez dakite nora jo. Eskualdeko bi familia daude elkartearekin, eta honen bitartez gahiagoragana ailegatu nahi dute.

Rakel GOÑI

Nafarroako Atentzio Eskasiaren Gai-neko Tratamendu eta Ikerketarako El-karteak (ADHI) 1998ko ekainaren 13an sortu eta 1999ko urtarrilean legaliza-tu zen. Osasun eta hezkuntza arloan zeuden beharrak ikusita ama talde batek, elkarteak sortzea erabaki zuen. Hezkuntza Berezian, hiperaktibida-dea kontuan hartzea lortu dute ADHI elkarteak. Hiperaktibitatea ez da eri-tasun berria. Betidanik esistitu bada ere, guttiak erabaki dute eritasun hau aztertzea. Arazoa berriki areagotu zen. «Lehen, eskolan 14 urteak bi-tarte egon behar zen, eta nahiz eta titulua ez lortu, lana bazen nonahi, denendako. Gaur egun gizartearen eskaerak handitu dira izugarri eta lan-postu guztiendako tituluak behar di-tuzu. Bertzalde, 16 urteak bitarte es-kolan egon beharra izugarri luzea egi-fen zaie haur hiperaktiboekin» dio Ma-ria Jesus Torres elizondarrak, ADHI-ko presidentea.

ELKARTEAREN SORRERA.

M^a Jesusen elkarteak nola sortu zuten azaldu digu: «Ni arras gaizki nintzen, nire alaba ez zuten inon ulertzen, ha-mar urte pasatu zirenean profesional bat ezagutu nuen, Daniel Montoya psikologoa. Etxean, gizartearen, esko-lan gauzak aldatzen zirela ikusita pen-tsatu nuen gainotzeko gurasoek ja-kin behar zutela, eritasuna zuen hau-rra hobe zitekeela. Egunkarian ira-garki bat jarri nuen, eta sei familiek erantzun zuten. Gauzak arras argi izan genituenean eta elkar ezagutu genuenean Elkarteak sortu genuen». Gaur egun 74 familia daude elkar-tean. Bertan gurasoez arduratzen dira batez ere. Haur desberdin bat dute-la onartzen laguntzen diete gurasoei. «Aurretik izan dituzun seme-alabei emandako hezkuntzak ez ditu ezer-tarako balio seme hiperaktiboarekin. Desafiatzen dizute beti, harro xama-rak dira, aurre egiten dizute noiznahi,

baina hori defenditzeko modua dute. Ikasten duzunean erantzun horiek defenditzeko direla, eta ez hala nahi dutelako, bide egokirik zoaz» uste du AD-Hiko presidenteak. Haurrak ere, euren egiten dutenaz berandu konturatzen dira, egin ondotik gehienetan. Blokeatzen dira maiz eta aktibitatez aldatu behar diete etengabe.

GURASOEN ESKOLA

Bi talde misto dituzte ikastaroak egiten, honekin batera gizonezkoak bakarrik dauden taldea egiten lehenengo elkar- tea izan da. Emaizta onak izan dituzte aitekin, hamabigizon daude taldean eta beraiek diotenez semea bertze modu batez ikusten dute eskolan daudenetik. Aldi berean, familiei laguntza ematen diete, «gurasoak batzutan bere buruaz beste egitea pentsatzen dute, eta guk ahalik eta laguntzarik handiena eman behar diegu unerik txarrenetan».

FORMAKUNTZA ESKASIA

Nafarroan hiperaktibitatea tratatzen dakien psikiatra bakarra dago. Hezkuntzan ere alorreko profesionalik ez dago. Orientatzaile eta irakasle aunitzek deitzen dute elkartera aholkua eskatuz. Errekurtso Zentroan aurten bi ikastaro egiten ari dira, Lehen Hezkuntzan. Irakasleentzat arraz zaila da ere, haur hiperaktiboak aunitz molestatzen dutelako. Ikerketen arabera, haurren %5 hiperaktiboak dira. Eskualdean bi familia daude elkartean sartuak, eta gehiago ere badirela badakite. Hori dela eta, familia hauei Elkar- teak eza- gutzeko deialdia egiten diete, behar izanez gero, Hiperaktiboen Elkartetik laguntza jasotzeko (Maria Jesus Torres 948 581 828). Begirale euskaldunak udalekuetarako, eta alorreko profesio- nalak (psikologo eta psikiatrak) behar dituzte elkarteko ekintzetan parte har- tzeke.

HIPERAKTIBIDADEA



Haur hiperaktiboak Aritzakunen (Baztanen) udalekuan

Ezin konzentratzea, atentziorik ez jartzea eta bulkada psikologikoak (inpultsoak) ez kontrola- tzea, pertsonak, batez ere haurrak, hiperaktibi- tatea duela adieraz de- zake. Eritasun hau diag- nostikatzen denean ezin izaten da atentzio eska- si hori sendatu, baina tra- tamendu egokia erama- nez hiperaktibitatea gaztaroen desagertaraz daiteke. Bertze pertsona batzuetan heldutasune- an ere eritasuna gara- tzen joan daiteke. Egun osoan ekintza aunitze- tan parte hartzen duen haurra dela uste dute au- nitzek hiperaktibo hitza entzuten dutenean. Mu- sika, kirola, hizkuntzak... badira aktibitate aunitz egiten dituztenak, baina era berean, hiperaktibo-

ak ez direnak. Eritasun hau dutenek eskolan adi egoteko arazo handiak izaten dituzte. Hainber- tze ez dituzte horrega- tik ikasturteak gainditzin. Gaitz neurologikoa da hi- peraktibitatea eta psi- kologo batek kontrolatu behar du. Jarrera eta por- taera kontrolatzeko ara- zoak dituzte, batzuk agre- sibilitatea gara dezakete. «Gehienentzako ez da- go tokirik gure gizarte- an, desberdinak sortu dira eta gizarteak ez dago ulertze- ko prestaturik» dio Ma- ria Jesus Torres Nafarro- ako Hiperaktiboen Elkar- teko presidenteak. Ma- haian daudenean aunitz nabari dira hiperaktibo baten sintomak, ez bai- tira geldirik egoten ahal. M^{re} Jesusen ustetan «pe- diatrak test batzuen bi-

dez jakin beharko luke hiperaktibitatea diag- nostikatzen, halere osa- sun alorrean ere hutsu- ne nabariak daude. Diag- nostikoa egin ondotik psi- kologo batek jarraipena egin beharko lioke eta hezkuntzan laguntza be- rezia eman beharko zi- tzaion. Guztion artean egin beharreko lana da, gurasoak barne». Hipe- raktibo batek bizi arrun- ta eraman dezake, dena den batzuk sendagaiak behar dituzte bizi osora- ko. Pertsona batzuk eri- tasuna onartzen dute bai- na bertzeak ez dute si- netsi nahi hiperaktiboak direla. Osasun eta Hez- kuntzan eritasunaren es- pezialista gehiago behar dira. Hiperaktiboen el- karteak bolondresak ere eskatzen ditu.

Maria Jesus TORRES Haur hiperaktibo baten ama

“Alaba arazo larria zen guretzat”

Nola jakin zenuen zure alaba hipe- raktiboa zela?

Gurasoak badakigu zerbait berezia ba- dela, zerbait gertatzen ari dela eta hor- rrek, hasieran ez du definizioz. Orain ikerketa neurologikoa egitea gomen- datzen dugu elkartetik baina, garai ba- tean ez genekien nora jo. Kristinak 4 ur- te zituenetik 10 urteak bitarte arraz gaiz- ki pasatu du. Inork ez zuen ulertzen be- re jarrera. Haur guztiak bezala, lagunak behar zituen gure alabak, baina hauek ere ez ditu izan. Guk ere arraz gaizki pasatu dugu.

Noiz aldatu dira gauzak?

Daniel Montoya psikologoa ezagutu nue- netik gauzak aunitz aldatu dira. Orain ongi gaude, nire alabak, Kristinak, duen jarrera gero eta gehiago ulertzen dut. Gizarteak zer pentsatzen duen, orain ez nau kezkatzen, jendea bazter bate- an utzi dut eta nire alabarengan zen- tratu naiz. Berarendako lanean ari ga- ra eta emaitza arraz onak lortzen ari ga- ra. Gure alaba arazo larria zen gure- tzat. Orain ordea Kristinaz harro gaude eta borrokatzea merezi du. Garapena ikusi dugu eta arraz kontent gaude.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Franko Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apeztebrea.
Kudeatzailea: Joxemari Ingoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amalia Gola.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Gofri.
Berriemakalariak: Mikel Iturregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Konbi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Pabli Iriarte, Jalone Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Iñiguez eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogoriza, Rakel Gofri.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Golzueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiako Aklara elkarre, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiako Aklara Elkarre...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
España	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du

GAURKOTASUNEN GAIA

Trafiko Lege berriaren eragina



Emisoraren erabilera zigortzea gaizki dago, momentu batean bizitza salbatzen ahal duzun abisuak bidaltzeko baliagarria baita

Miguel LETONA Elizondoko kamioi gidaria

Lege berriarekin jarriko dituzten isunak zerga moduko bat dira, dirua ateratzeko bertzetik ez dira. telefonotik solasteak aldika despistatu egiten du, hori egia da, baina emisoratik solastea ez da hain arriskutsua: solas batzuk egiten dituzu eta kitto. Gainera, arras baliagarria da, kamioilarien artean abisuak emateko: hemen istripu bat badela, hori errepidea ixtea dela... arazoetaz enteratzeko ongi dago. Bertze kontua alkoholemiarena da: lehenago 0,5 gauen, gero 0,3ra jautsi zuten eta orai 0,1 nik uste dela. Nik ez dut problemarik, urarekin bazkaltzen baitut, baina ardo pixko bat edateagatik ez da horrelako arazorik kamioia gidatzeko. Espero dut hasierako indarra galtzea, bertzenaz ez dakit: telefonoz solasteagatik kamioia kendu eta animaleko isunak, nahiko gogorra da, soberaxko. Kamioian zaude, telefonoa aditzen duzu eta zer egin behar duzu? Ez hartu? Igual da mezu garrantzitsu bat eta zer egin behar duzu? Orain mobila erabiltzeko esku libreetako tresna erosi behar duzu eta hori dena dirua ateratzeko da, Nik bat izan nuen eta kendu nuen, gaizki zebilelako, arazoak ematen zituen ongi aditzeko. Ona jartzeko hamar mila duro gastatu behar dituzu, antena eta guzi jartzeko. Azkenean, takografoarekin gertatu zena gertatzen da: kamioilariak ordaindu behar du. Legeak gehienetan gauzak hobetzeko egiten dira, baina nire ustez kasu honetan... Telefonoz izugarriko solasaldietan aritzen direnak badira, gesto haundiak eginez eta arreta galduz, baina gure kasuan mezua hartzen dugu, «honako toki honetara gan behar duzu», eta kitto. Eta telefonoarena paratu dutenez, emisora ere paratu dute. Abisua ematen dugu, «kasu eman, hemen polizia dela», akaso horregatik kendu izanen dute. Baina istripu bat gertatzen bada leku txar batean, abisuak bizitza salbatzen ahal duzu, «kasu, kurba hori pasatuta baduzu behi bat, edo orga bat», edo elurra dela, edo horma... Emisoratik momentu bat da, esku batekin moldatzen zara eta ez duzu deus apuntatu behar, mezua entzun, eskerrik asko eman eta fuera!



Trafiko lege berria dirua biltzeko bertzetik formula bat iruditzen zait

Zarbo IBARROLA Auto gidaria

Elgorriaga eta Doneztebe arteko bidea, Garraio Departamentuarentzat herri barnea da. Orduko 40 kilometrotik ez pasatzeko seinaleak dauka, baina aldi berean errepide ederra da, maldan behelti eta edozeinek 80 edo 90 kilometro hartzen ditu. 60an joanez gero ere falta larria da, eta horrelako hiruarekin kamioi gabe gelditzen zara. Ni saiatu naiz hor 40ra joaten eta bizikletak ere pasatzen dizute! Nire ustez soberra gogorra da horregatik kamioia kentzea. Gero, ikusi egin beharko da trafikoa zaintzen dutenak nola jokatzeko dute, baina harrapatza joaten badira harrapatuko dute. Ni gidaria naiz eta desoreka handia somatzen dut hor sortzen ahal den arriskuaren eta ordaindu behar den zigorraren artean. Ehunera bazoaz arriskutsua da, duikabe, industrialdea delakoz eta auto aunitz ibiltzen delakoz. Hor ulertzen dut multak paratzea, baina bertze gauza bat da 60ra joatea. Orokorrean ikusita, trafiko lege berria hau dirua biltzeko formula bat iruditzen zait, eta kitto. Mobilarekin ibiltzea edo mozkorra joatea arriskutsua da, baina bertze gauza aunitz...



Txirrindulariari babesa ematen saiatu arren, beti izanen da kaltetuena

Jose Ramon MARTIN Zikloturista

Zikloturista beti da kaltetuena, ahulena delakoz. Lege berriekin babesa ematen saiatu arren, beti horrela izanen da. Adibidez, tropelean joatea uzten dute, baina metro terdiko bide bazterra izan behar duzu. Hagitzez ziurrakoa da hamar lagun joatea bakarra joatea baino. Bertze ibilgailuek gehiago errespetatzen dute, aitzintzerako orduan eta. Hori, errepide hauetan, ezin da pentsatu ere egin. Gainera, bazterretako leerroen gainean soinu bandak jarri dituzte, txirrindularientzat hagitz txarrak direnak, eta gaitzadaren barreneko aldetik joatera behartzen gaituzte. Ongi dago kaskoa erabili behar izatea, eta hori aholkatzen dute denek. Arropa distiratsua eraman behar izaten da, bertze ibilgailuek ikus gaitzaten, baina ez dakit zergatik argia eramatera behartzen duten. Normalean, zikloturistak egunez ibiltzen gara. Gauaz ibili behar denarentzat ez dago gaizki, baina bertzenaz... Gaizki ibiltzen diren zikloturistak ere bada, noski, baina gaitzekotan, txirrindulariak gaitzuko du beti. Txirrindularia bertze ibilgailu bat bezala aitzindu beharko litzateke.

• IRAKURLEAK MINTZO •

**Lesakako alkatea
adierazpen
askatasunaren
aurka**

Ez da lehenengo aldiz horrelako orri bat ateratzera behartuak ikusten garela zoritxarrez. Oraingo hontan Espainiako trapeketa Lesakan jokatu zela eta, betiegin ohi dugun bezala, gure herria informatzeko hainbat kartel eta pankarta egin ditugu gure iritzia zabaldu asmoz. Gure hamdurako zortzi ordu pasa baino lehen pankarta eta kartel guztiak kenduak izan dira. Ez da, erran bezala, lehen aldiz hau gertatzen dela gure herrian, orain urte bat antzeko gauza bat pasa zitzaigun, orduko hartan gure herriko alkateak Espainiako bandera eskatu zion Nafarroan Espainiako go-

bemuak duen ordezkariari, eta hori herriari jakinarazteko kartel batzuk jarri genituen eta guk jarri bezala kendu zituzten.

Guzti honen aurrean kezka haundia gelditzen zaigu zeren kartel informatibo hauen aurrean izan duen jarrera faxista ez zaigu normala iruditzen EAJ-koa den alkate batean. Horregatik galdere batzuk egin dizkiogu gure buruari; zergatik kendu ditu kartel hauek bapatean eta normalean jartzen direnak «errespetatzen» ditu? Agian benetan Espainiako «roji-gualda» maite duelako? edo eta beste herritar batzuk berak baino gehiago agintzen dutelako?

Idatzi honen bitartez zera azaldu nahi genieke EAJ-n agintzen duten eta Lesakako herriari. Horrelako pertsonaie-

kinez dago ez Euskal Herria ezta Lesaka eraikitzerik, horregatik EAJ-ri eskatzen diogu kendu ezazue lotsarik baduzue pertsonai hau Udalbiltzatik. Eta Lesakako herriari gure herriak ez du alkate Espainolik merezi ezta adierazpen askatasuna urratzen duenik ere, beraz denon artean guzuzen alkate euskaldun eta demokratiko bat jartzera.

Lesakako SEGI.

**Doneztebiko Gizarte
Segurantzaren
bulegoa eta euskara**

Azpian sinatzen dugun udal ordezkariok, Gizarte Segurantzak Donezteben duen bulegoan

lanpostuak hornitzeko euskarari eman dion tratamendua salatu nahi dugu. Izan ere, erakunde honek Donezteben duen bulegoak Kudeatzale Argibide emaille eta Argibide laguntzaile lanpostuak hornitu behar ditu, lehiaketa murriztuaren bidez.

Lanpostu hauek bezeroekin harreman zuzena dute. Lehiaketa horrek, ordea, ez du eskatzen euskaraz jakitea, ez eta merezimendu moduan ere.

Honen aitzinean, bulego honek hartzen dituen herri guztiak 1986/18 Foru Legearen arabera eskualde euskaldunetan kokatzen direla gogorazi nahi dugu, non euskara hizkuntza ofiziala den. Bertalde, Administrazio Publikoetako Ministeriaren 1990/7/20 Aginduaren arabera, autono-

mi erkidego bakoitzeko hizkuntza koofiziala kontuan hartuko da, bereziki bezeroekin harreman zuzena duten lanpostuetan.

Beraz, Gizarte Segurantzari legea bete dezan eskatu nahi diogu, deialdi hau bertan beharra utziz eta bertze bat prestatuz, non euskaraz jakitea ezinbertzekoa izan den.

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Lehendakaria:
Tomás Azpiroz Alkoz
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Lehendakaria:
José Ramón Amoros
Oskotz Baztango Alkatea:
Fco Javier Olarzabal



LESAKA

Maderas GOMEN



- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoiz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

616 513 491

Pitti
ESKABAZIOAK



C/Amelia
31701 DONEZTEBE (NAFARROA)



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA

☎ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA, 2002-01-20

«Burdina oloztatzen zuen, eta baso baten truk egiten zuen! Ez zuen kobratzen joateagatik horrenbeste, ordu erdia pasatzeagatik beste hainbat, eta IVA eta venia... Gure komunitate txiki horietan elkar laguntza izan da, zemahtarako trebea zenak egiten zuen zekiena, baina beste modu batean. Hori gaitzen ari den edota erabat galduta duen gizartea da gurea».

Mikel TABERNA
Berako idazlea
Argia 02-01-20

«Mendiko bizikletako denboraldia otsailaren

10ean hasten da eta nik aspaldi erabakia nuen urtarril hasiera arte ariko nintzeia ziklo-krozean. Lehenetasuna mendiko bizikletak du niretzat. Eten txiki hau eginen ez banu, ezingo nuke mendi bizikletako egutegia irailera arte topera bete».

«Ez daukat mailarik munduko txapelketa bat korritzeko. Euskal Herriko eta Espainiko lasterketetan ongi aritu naiz, baina hortik mundialera salto handia dago».

Juan Carlos GARRO
Berako birrindularia
Egunkaria 02-01-24

• 11 GALDERA LABUR •



Joxemanuel MUÑOZ Aranoarra, Telefonikako langilea.

Zerk bultzatu zintuen herri txiki batera etortzea?

Lasaitasuna eta gustuko ingurua gertu izatea, mendia gustatzen zait alegia. Bizimodua aldatzea ere bai.

Zenbat urte damazkizu bertan?

Hamar.

Uste bezalako bizitza egiten duzu?

Baietz esan liteke.

Nolako jendea aurkitu duzu?

Era guztetako jendea leku guztetan bezala, hau ez da oso aparteko herria. Ez gaude gure pentsaera eta portaera oso bitxia izateko bezain baztertuak.

Zenbat denbora pasatzen duzu herrian?

Ahal dudan gehiena, egunaren erdia baino gehiago batz bestea.

Zer duzu gogoko jai egun batean?

Lo egitea, sua piztu eta irakurtzea. Eguraldi onarekin mendian paseatu.

Herriko leku gustukoena?

Nire etxea; frontoia udaran jendea biltzen denean giza-giroa sortuz; inguruko leku asko (Bumi, Aranoko kas-koa, Sorotxo, Larre-Iturri...)

Zerbaiten falta sumatzen duzu?

Jende gehiago, umeak barne. Hortik aurrera gainontzekoa bere gisa etortzen da.

Donostian ala hemen hobe?

Hemen dudik gabe. Donostian lana besterik ez dut egiten, gauza ez atsegina.

Kirolen bat egiten duzu?

Denetik pixka bat baino fundamenduak deus ez.

Mendia ala itsasoa?

Mendia nahiago dut. Halere zorionez biak ditugu hemen begi bistan.

TIBURDIO COPIENETAK E DEBERE

ANZABAL
AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Auroa, etxebizitza, isuritu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserrí, bodega, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santago 15 - Tfnua: 948 300004 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

ERROTAZAR
Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

LAIEZAKI
Tfnoa: 948631076 - BERA

TABULA
loredenda
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

KULTURA

Nafarroako Haur Kantari txapelketa otsailaren 23an hasiko da Donezteben

Otsailaren 15ean akautuko da izena emateko epea

ttipi-Itapa

Euskal Kantuzaleen Elkarrekin eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Euskara Zerbitzuak, Nafarroako Haur kantari txapelketaren bertze edizio bat antolatu dute. Nafarroako gazte euskal kantugintzaren aberastasuna ezagutarazi eta euskaraz kantatzeko zaletasuna sustatzea du helburu aipatu txapelketak.

Txapelketaren barruan lau kanporaketa egingen dira: lehenbizikoa otsailaren 23an izanen da Doneztebeko Bortatxo dantzalekuan. Martxoaren 2an, Lizarrako Gomen zinemaren, martxoaren 9an Tuterako Versailles aretoan eta martxoaren 17an Uharteko Iruñeko Ugamudia kiroldegian egingen dira gainerako kanporaketak. Final handia, azken urteetan bezala, Iruñeko Gaiarre antzokian bu-



Lau kanporaketa saloen ondotik, Haur Kantari txapelketaren finala martxoaren 24an izanen da Iruñeko Gaiarre antzokian.

rutuko da martxoaren 24ean.

Txapelketa bi kategoriatan banatuko da. Batetik txikiak, 1991 eta 1995 urteen artean sortutakoak eta bertetik gaztetxoak, 1987tik 1990a bitartean jaioetakoak. Beraz, lehiaketa Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako hau eta gazte guzietan zabalik dago. Bakarka, bikoteka edo taldeka parte hartzen ahal da eta, noski, euskaraz kantatu behar da. Ikastetxe bakoitzak gehienez ere lau ordezkari aurkeztu ahal ditu, kategoria bakoitzeko bi.

Izen emateko epea

otsailaren 15a arte zabalik dago. Horretarako 948 141812 telefonora deitu behar da. Kantuaren hitza eta partitura igortzeko, internet bidez euskokultur@tearra.es helbidera edo ohiko posta bidez Euskal Kantuzaleen Elkartera; Descalzos Kalea, 50; 31001 Iruñea.

EUSKARA

Osasunbidea euskalduntzea eskatuz bi mila postal bildu dira

ttipi-Itapa

«Osasunak euskaraz baleki! Ziurtatu euskararen osasuna» kanpainarekin bat eginez 2.082 postal bildu dira Baztan, Mallerreka, Bortzirak eta Leitzaletik Santiago Cervera, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariari. Zehazki, Mallerrekan 60 postal bildu dira, 294 Baztanen, 182 Arantzán, 282 Igantzín, 120 Etxalarren, 201 Lesakan, 290 Beran, 437 Leitzañ, 130 Goizueñ, 52 Aresen eta 34 Aranon. Herriz herri bildutako postalei, AEK eta LAB erakundeek bitartez jasotakoak gehitu behar zaizkie.

Nafarroako Gobernuari osasun zerbitzuetan euskararen normalizazioa bideratzeko plana martxan jar dezan eskatu nahi zala kanpaina honen bidez.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
• Ordegun eta ordezalean. Batetik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L. Bittoria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI S.L. • 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Villa karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragaritasun planak

ZALAIN JATETXEA

EGITIMENKO MENUA ETA KARTA

Beda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
948631106
BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera • 948630735

BERA

Iñauteriak ekitaldiz bete-beteak heldu zaizkigu aurten ere

Haur, gazte nahiz helduek izanen dute besta egiteko modua

Asier GOGORTZA

Ortzean Gizen egunean hasi eta heldu den astelehenerarte mozo eta musika saltsa izanen da nagusi Berako karrika eta auzoetan. Otsailaren 7an hurrek emanen diote hasiera iñauteri denborari, eta etxeko-etxeko eskean ariko dira goizean (eguerdiko 12ak arte, ohitura den bezala). Ondotik, arratsaldeko 3,30etan eskoletako ikasleak irude eta artzaiez jauntzi eta herrian barna itzulia egiten dute. Aurten Zilipurdi taldearen eskutik dantzaldia izanen dute itzulia akautu eta gero.

Hungariako zingaroak aurten iñauterietarako juxtu-juxtuan ailegatu zaizkigu kazulak



Sorgin koadrila bat Altxateko karrikan.

eta zartagiak astinduz. Larunbatean arratsaldeko 7etan abiatuko dira llekueetatik. Entsaioak berriz, otsailaren 6an eta 8an izanen dira, lastotenean, arratsaldeko 7etan. Biharamune-

an, berriz, Irude eta Artzai haundiek beteko dituzte herriko karrikak, eta arratsaldeko 6etan Antzeko Parecido taldeak, Berako gazteen antzerki taldeak, karrika animazioa jarriko du

Altxate inguruan.

Astelehenean, akautzeko, nagusien eskaera izanen da goiz-goizetik, eta ilunabarrerako pentsatzen ahal da nahiko saltsa izanen dela karrika eta ostatuetan.

FLASH

"Bertze begiekin" hitzaldi sorta

Patxi Gonzalez iruindarrak hiru hitzaldi emanen ditu eguneroko bizimoduarekin lotura duten gaien inguruan. Horrela, otsailaren 15ean etxe barreneko armonia eta osasunari buruz ariko da, eta otsailaren 22an trukeari buruz. Martxoaren lehenean ere bertze solasaldi bat prestatu du Lamixine BATek Patxi Gonzalezekin. Hitzordua arratsaldeko 7etan izanen da lastotenean.

Kamioi gidaria hila istripuan

Carmelo Leronés Mayordomo, 62 urteko kamioi gidari gipuzkoarra hil zen urtarilaren 29an N-121-A errepidean izandako istripuan. Beratik Endarlatsa aldera, hiru karrikak akautzen den lekuan erreka aldera erori zen Transibardin enpresako kamioia eta berehala hil zen gidaria.

Arartekoaren bisita

Maria Jesus Aranda, Nafarroako Arartekoa Beran izan zen urtarilaren 23an. Herriko Etxea, San Jose Zahar Etxea eta Ricardo Baroja eskola bisitatu eta bere lanaren berri eman ondotik, herritarren kezak bildu zituen liburutegian. Jon Abril lankidearen egoera, euskara erabiltzeko oztopoak eta guardiazibilak Beran duen jarreraren berri jaso zuen.

ERTZ

Ertz kolektiboak bere webgunea aurkeztuko du otsailaren 15ean Kultur Etxean

Berako hainbat gaztek osatzen duten Ertz arte guneak bere web orrialdea izanen du hementik aitzinera: www.ertz.net. Bertan, urteko ekitaldien berri emateaz gain, herriko sortzaile gazteen galeria birtuala egonen da ikusgai. Horrela, musikan, pin-

turan, bideoan zein bertze arte motetan ari diren beratarrek beren lanak erakusteko leiho bat izanen dute.

Web orrialdeaz gain, kolektibo hortako bi partaidek argazki eta musika liburu bat aurkeztuko dute egun berean.



Argazki eta musika liburu bat ere aurkeztuko du Ertz kolektiboak.

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista
Legia I. behea • BERA • 948 630652

bortzirudi
BERA
FOTOKOPIAK, ENKADERNADURAK, PLASTIFIKADURAK, FAXA, E-MAILA, SKANERBILA, ARGAZKI MUNTAIK, ESTEGARA 26 behea
TEL. FAXA: 948 63 15 21

Xireti
948 631462
Altxate 1 • BERA

LESKA

Ortzegun Gizeneko eskearekin hasiko dira aurten ere Iñauteriak

Igandean zakozarrak eta astelehenean karrozak aterako dira

Aitor AROTZENA

Urteroko ohiturari eutsiz, Ortzegun Gizeneko «Arraultze, arraultze; zingar arraultze; bat ez bada bertze» ebrez etxeko eskeak hasiera emanen die aurten Iñauteriei. Ortzirak arratseko 8,30etan, Iñauteriei buruzko diaporama eskainiko du losu Txueka historialariak Arrano elkartean, Lesakako Gazte Asanbladako antolatutako ekitaldian.

Larunbat arratsean ikusiko dira lehendabiziko mozturak eta igandean, Zakozarren harat-honatek hartuko dute protagonismoa. Musika banda izanen dute lagun beraien itzulian. San Fermin jubilatuko elkarteko bazkideek afaia izanen dute egoitzan, arratseko 9etatik aurrera. Entremes hotz eta beroak, haragi zopa, ajo-arriero eta whisky tarta izanen dute menuan, kafea eta koparekin lagundua. Ardoa eta txanpaina elkartearen kontura joanen dira. Txartelak otsailaren 7a baino lehen hartu behar dira elkartean, 13'82 eurorren truke. Astelehen eguerdian, urtetik urtera ederragoak diren karrozak ikusteko modua



Urtetik urtera karroza ikusgarriagoak prestatzen dituzte koadrila batzuk. Aurtengorako ere, irudimena dantzan jarri izanen dute honez gero.

izanen da plaza inguruan. Fraindarrek ere ez diote hutsik eginen urteroko ibilaldiari, astelehen eta asteartean baserriz baserri ibiliko baitira. Astelehenean Frain auzoan ibiliko dira eta asteartean Izotzaldean.

Kontzertua Kattun

Ortzirak honetan, otsailak 8, arratseko 10,30etan kontzertua eskainiko du Jabier Mugunzak Kattu Ostatuan. Bortzirietako Euskaltegiak antolatu du ekitaldia, matrikulazio kanpaina akautzeko.

ADINEKOAK

San Fermin jubilatuko elkartearen urteko batzarra otsailaren 9an

San Fermin erretiratuen elkarteak urteko batzarra eginen du larunbat honetan, otsailak 9, arratsaldeko 6etan lehen deialdian eta ordu erdi beranduago bigarrenetan. Gai-ordenari dagokionez, joan den urteko batzarraren irakurketa eta, egoki bada, onarpena; 2001. urteko kontuen balantzea; 2002. urteko egutegia

eta aurrekontua eta, azkenik, galdera eta eskarien txanda. Ondotik, berendua izanen da.

Bertzalde, kartekin jostetan aitzeko modua ere izanen dute. Mus, sei en eta despiste txapelketa antolatu du elkartek. Parte hartu nahi duten bazkideek, elkartearen ostatuan eman behar dute izena otsailaren 28a baino lehen.



PERTSONAIA

Oskia BARAIBAR

«Langileen formakuntza eta lantegien beharren arteko desoreka handia dago»

Cederna-Garalur erakundeak Alkaiagan duen Lanbide Orientazio zentruan lanean hasia da Oskia Baraibar lesakarra. «Langabezia dauden eta lanez aldatu nahi duten inguruan dute lan eskaintza berri ematea da gure beharretako bat» dio Enpresaritzak ikasketak akautu berri dituen Oskiak. Bere ustez, desoreka handia dago enpresen premien eta inguru honetako jendearen ikasketen artean: «Langabetu kopuru handiena goi mailako ikasketak eta batere ikasketarik ez dutenen artean dago». Horregatik bisitatzen dituzte ikasleak, «ikasleek jakin dezaten zein gisako formakuntza jendea behar duten lantegietan». Denboraguti du lanean, baina «etorkinak lan munda egoki sartzea da gure erronka» dio.

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

KIKKURRA
Ileapaindegia
Tel: 948 637 429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESKA

ANIA
Janaridena
Bittiri 41 • 948 637 518 • **LESKA**

KATU
ostatu - jatetxea
Plaza karminak eta menuak
• 948 637 573 • **LESKA**

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948 637 027 **LESKA**

ETXALAR

Haurrak nagusi Ortzegun Gizenean, iñauteetako lehen egunean

Dagoeneko herrian iñauteri-usaia somatzen da

Joseba eta Nerea

Etxeko ganbaran ditugun arropa zaharrak edo aurtengorako bereziki erositako mozo-roak prestatzen hasteko momentua ailegatu da, iñauteriak gainean baititugu. Etxalarren iñauteriak bi zatitan partitzen dira; alde batetik haurrak protagonista izaten diren Ortzegun Gizena eta bertalde handien iñauteriak, astelehena eta astearte.

Lehen egunean, goizez haurrak etxez-ete eskean ateratzen dira «urtzaingizen, urtzaingizen, zingar-arraultze, bat ezpada bertze... biek hobe!» kantatuz eta etxe nahiz baserrietan ematen dizkieten urtatxak bilduz. Bazkaldu ondotik eskolako haurrak elkartu, mozorrotu eta eskolan prestatu duten antzerkiak plazaratzen dituzte. Trikitilarien laguntzaz herriko buelta egin ondotik guraso elkartekoek prestatutako berenduekin akautzen dute egun berezi hau.



Antzerkiak

Udaberriko Besta zirenetik indar handia dute Etxalarren iñauteriek.

Astelehenean gazte eta helduek hartuko dute iñauterien txanda. Goizeko 9etan Haritzpe ostatuan gosaldutxak hasiko dute eguna, gero bi taldetan banaturik goiko eta beheko auzotara joateko. Auzo bazteko baserrietan eskean ibili ondotik beheko auzoetan ibilitakoek Armitxen bazkalduko dute aurten eta goiko

auzoetakoek berriz Santseineko Bordan. Azkenean, berriz ere denak elkartuko dira Haritzpen egiten den afarian.

Astearte eguerdian hasiko da urteroko karrerozko desfilea. Herriari buelta eman ondotik bazkaria izanen da nahi duten guzientzat Anttonion. Iñauteriak agurtzeko afaria ere Anttonion egiten da.

Kinto bazkariak

Ohitura izaten da Etxalarren kintoak otordu baten inguruan biltzea. Igandean, otsailak 10, hainbat kintetako lagunak bilduko dira urteroko kontuak berritzeko. Etxalarko benta, Anttonio edo Haritzpe aspaldiko lagunak berriz ikusi eta betikoekin solasaldi bat izateko topagune bihurtuko dira.



PERTSONAIA

Pedro Juan LASAGA

«Herriko besta onenak dira iñauteriak»

Urte bakar batean ere hutsik egin ez duen eta egiten ez duen herri-tarra dugu Arroxe. Urtero Etxalarko iñauterietako protagonista handienetakoa izaten da eta aurtengorako zer prestatzen ari ote den ateratzen saiatu gara.

• Zer nahiago, lehenago edo oraingo iñauteriak?

Oraingoak, mozorro gehiago izaiten delako eta jende gehiago biltzen delako.

• Zer dire iñauteriak zuretzako?

Urteko bestarik onenak.

• Herriko bestak edo iñauteriak?

Iñautik, dudarik gabe.

• Zer dute berezia Etxalarko iñauteriek?

Gehienbat herriko jendia biltzen da eta horrek giro berexia sortzen du. Itxeko besta da.

• Zertaz mozorrotuko zara aurten?

Hori sekretua da... baina lumakin zenkusia du.

SAROB

okindegia

SANDERS Pentauak

Etxe 41, Tfnoa: 948 630 839 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

LEGARZA

Ventas: 9 • 948 637 030 • LESAGA

IGANDE GOIZTAN IDOKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak
espiralean ere
egiten dira

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduerentzat

pentzurik egokiena

Tfnoa: 948635214

ETXALAR

GOYA

JOSTAILUAK

JANTZIAK

OPARIAK

ERREMINTAK

Aitzate, 5 • 948630083 BERA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Berrizaunen errepideak dagoen lekutik segituko duela iduri du

Eskolako Zuhaitzaren Eguna otsailaren 14an ospatuko da

Oskar TXOPERENA

Nafarroako Gobernuak, ibeltzaren 14an egindako bilkuran, Sunbilla mugatik Berara bitarteko errepide nagusia egin beharreko obrei buruzko txostena onartu zuen. Bertan, moldaketek ingurumenean izanen duten eragina ikusten ahal da eta moldaketa egiteko dauden aukera desberdinak ere. Igantziko dermioari dagokionez, ez dago ukatzerik lanek izugarriko garrantzia izanen dutela, Berrizaun inguruan batez ere. Asfaltatik bazegoen gogoia bertako auzotarren artean errepidea Bidasoaren zein aldetatik pasatuko zen jakiteko. Azken urteotan aukera guztiak alpatu izan dira, baina, oraingo proiektuak dienez, errepidea errearen ezkerrealdetik pasatzeko aukera baztertu egiten da, dauden etxebizitzengatik. Ondorioz, oraingo errepidea Olaetxeberriko belagaira zabalduko luke-



Oskar TXOPERENA

Moldatzen denean Errepide Nagusia Bidasoaren eskuinaldetik pasatuko dela ematen du. Hala gertatuko balitz, XIX. Mendearen erdialdera Martin Belarra jaunak egindako Sebastianea etxea bota egingen lukete seguraski.

te seguraski (Sebastianea etxea bota egin behar harko lukete horretarako) eta bidegurutzeari sarrera azpitik egin. Bertalde, txostenak diotenaren arabera, Sunbilla mugatik Berrizaunera baino bi zubi eta tunel bat egingen litzateke. Beraz, proiektu honek zuzenean ukitzen dituen lurren jabeek orain dute aukera behar bezala informatzeko.

Zuhaitzaren Eguna

Idatzia bidali du Guraso Elkartearen Juntak eskolako haurren etxe guzietara, Zuhaitzaren Egunaren berri emanez. Hitzordua otsailaren 14rako eman dute, arratsaldeko 3etan. Jakina, joan nahi duten guziek aitzurra eraman behar dute, eta, ahal bada, zutzaizak segutzeko ziriak ere. Eguraldiak la-

gunduko ez balu otsailaren 18ra arte gibelaratuko litzateke.

Arkupeak

Otsailaren 15ean ospatuko dute urteko besta herriko Arkupeak-eko bazkideek. Mezak, bazkariak eta ondotik egingen den dantzaldiak osatuko dute egitaraua. Joan nahi duenak otsailaren 8rako eman behar harko du izena.

Errotazarretako zubia

San Juango zubia 1890 inguruan egin zela kontatzen hartuta, garrantzi izugarria zuen garai batean Errota baino goitixeago dagoen Errotazarretako zubiak. Izan ere, Iri-sarri, Argarate eta Mendibil aldeko baserriek herriarekin zuten komunikabide bakarra zen (16/26: «*pone en comunicación la Villa con los barrios de Argarate, Mendivil e Iriarri*»), eta gainera, inguru honetik Sunbilla eta Malerreka zegoen biderik motzena (34/33: «*paso para los transeuntes que se dirigen a Sunbilla*»). XVII. mendean zurginei egindako ordainketa ugariak egurrezkoa izaten zela argitzen digute, eta gaur egun ezagutzen dugun harriko zubia Julian Mendigutxiak egin zuen 1919an, 770 pezetatan. Azken mende honetan bertze zenbait izenekin bataiatu bazaio ere («*Puente de Argarate*», «*...de Yrisarri*», «*...de Argaziz*»), Herrikoetxean agertzen den zaharrena «*Puente de Errotazarreta*» da, eta jatorrena ere bai seguruenik. Izenak adierazten du, bertalde, bertze errota izan zitekeela ezagutzen duguna baino goitixeago.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gilotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziako Bentak • 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta baimuarekin

Plaza Berria, 13 • (948) 627547 **LESAKA**

Zure inguru klase gutako inguruz (komero, zinaira, armario, kuxina...) eta arazo-eragilez gabeko nahi baduzu, deitu! Gu ardura gurekiko gure herriaz. Termite eta Polifenil kontrainstamentua



948630155

BERA

ARANTZA

Arantzako Gazte Asanbladak margo lehiaketa antolatu du

lñauteak akautu eta bestak prestatzeko lanean ari da herritar talde bat

Nerea ALTZURI

Lanbidez margolaria denak beharbada abantaila izanen du; baina ofizioa bezalaxe, afizioak ere tokia duenez gu-re egunerokoan, margolarian egiten dituen zale orok ere badu tokia Gazte Asanbladak antolatu berri duen pintura lehiaketan.

Estreineko aldiz antolatu dute taldeko gazteek gisa honetako lehiaketa. Herritar nahiz arantzar ez direnek parte hartzen ahal dutenez gero, animatzeko deia egin dute gazteek. Lanak edozer formatu eta gaiakoa izaten ahal dira, eta Zuzainea ostatuan utzi behar dira martxoaren 1a baino lehen. Irabazleak sari potoloa eramanen du: asteburu bateko egonaldia Sallent de Gallegon, Hueskan. Aurkezten diren margolan guzietan osatutako erakusketa ere gozagai izanen da ostatuan berean lehiaketa akautu bezain abudo.



Xabi ZUGARRAMURDI

Adin ezberdinetako jendea bildu da bestak prestatzeko batzordean.

lñauteetako bestondoa eta gero... herriko bestak prestatzen!

Joan den aste hon-darra luzea izan zen her-ritar aunitzentzat. Or-tzegunetik hasi eta igan-dera bitarte lñauteak os-patu ziren. Hamar mo-zorro xuriko taldea ibili da aurtien guzia antola-tzen, gainerako herritar guz-tien babesa izanez.

Lau auzoetan eta herri kaxkoan puxka biltzea egin zuten mo-zorro haundiek eta ttikiek ha-sierako hiru egunetan. Tartean, ezin atzendu eskolako ikasleek eta herriko haurrek, ortzira-lean eta larunbatean egindako mo-zorro des-fileak. Ortzeguneko Pa-bloeneako emakumeen afari goxoa eta gero, hain haurrak ez diren la-gunek ere, hurrengo bi

arratsak hartu zituzten mo-zorroretzeko; eta he-rriko etxeko gorapean, Mindegia triki taldea eta Jalisko Band izan ziren guzia girotzen. lñaute-en hondar egunean, pi-lotariak, bertsolari pilo-tariak, bertsolariak... saltsarako perrexil mo-ta guziak izan ziren. Eta Aterpen bertso bazka-ria izan zen Mendiluze, Soro-zabal eta Euskitze bertsolariekin.

Gaztak egiteko ikastaroa egin zuten Zahar-Txokon

Badira gazta egileak herrian. Baina da-kienak hobetzeko eta gazta egiten ideia gu-tti duenak ikasteko, ikastaroa izan zen hil-beltzaren 28 eta 29an Zahartxokon. Bortzak Bat kooperatibak anto-latutako ikastaro ho-nek 15 ikasle izan di-tu, gailen jaiok doren bi irakasleren gidari-tzapean. Lehenbiziko goiza guziz teorikoa izan zuten eta astear-tean praktikak izan zi-tuzten. Bi eguneko ikastaldia ongi akau-tzeko Zahartxokon bazkaldu egin zuten.

Urteroko mo-zorro egunen ondotik, abuz-tuan paratu ditu begiak besten prestakuntzara-ko talde batek. Herriko Etxearen bandoan eran-tzunez, 15 lagun ari di-ra bestak prestatzen eta ekitaldiak lotzen. Ortzir-ral honetan, 19:30etan eginen da hirugarren bi-lera. Laguntzeko gogoa izanez gero, herritar gu-ziei daude idekiak bile-ra hauek.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

Okindegia Jatetxea

Uxoa

Okindegian

- Ogi artisaua, eguneko eta txapata

Jatetxean

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parillan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotza ogi-labean erreka. Goxo-goxoa!

ola SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

MALERREKA

Diapositiba lehiaketa antolatu du Ezpelura Emakumeen Elkartek

Lanak otsailaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira

ttipi-ttapa

Malerrekako Ezpelura Emakume Elkartek diapositiba lehiaketa antolatu du. Parte-hartzaileek gai ezberdinak izanen dituzte aukeran: Gure eskualdea, lanbideak, paisaia, ohiturak eta bizimodua Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortzirietan.

Lehiaketa hauetan ohikoa denez, diapositibak gutunazal itxian, otsailaren 25a baino lehen igorri beharko dira helbide honetara: Ezpelura Elkartea; 1. posta kutxatila; 31740 DONEZTEBE. Parte-hartzaile bakoitzak hamar diapositiba aurkeztu ahaliko du gehienez.

Sariei dagokienez, lehenbizikoa saria 300 eurokoa izanen da, 150 euroko bigarren eta 90



Urteroko ikastaroekin batera, Landa Eremuko Nafarroako Emakumeen Topaketa antolatuko du Ezpelura elkartek martxoaren 23an.

eurokoa hirugarrena. Sanitakolan guztiak Ezpelura elkartearen esku geldituko dira. Elkartek bertze parte-hartzaileen lanak ere eskuratu ahal izanen ditu, berak erabiltzeko.

Epaimahaia, emakumeen elkarteko kidez

eta argazkigintza sektoreko profesionalen osatua egonen da. Xehetasun gehiagorako, lehiaketaren oinarriak Doneztebeko Zaldia eta Mena argazki dendan eta Malerrekako

Mankomunitatean izanen dira eskuragai.

Lehiaketarekin, martxoaren 23an Donezteben egingen den Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Topaketa prestatzen hasia da Ezpelura Elkartea.

Landa eremuko emakumeen V. topaketak

Martxoaren 23rako antolatu du Ezpelura elkartek Nafarroako landa eremuko emakumeen bosgarren topaketak. Urtarrilaren 30ean emandako prentsaurrekoan egitarauaren berri eman zuten. 11:00etan Aparan industrialdean aparkatu ondotik joaldunek ongietorria eskainiko diete emakumei eta elkarrekin egingen dute elizarako bidia. Ana Etxeberria Ezpelura elkarteko lehendakariak, Loren Albeniz INAMEko zuzendariak eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak solasak adituko dituzte. Trapatan dantza eta artisauen erakusketa ikusgai izanen dira. Frontoian bazkaldu eta ondotik dantzaldia izanen da Jalisko Band taldearekin.



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirietan eta Malerrekako
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guztietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Iruñgo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 900 704704

☎ 948 637404

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**BEINTZAKO
OSTATUA**
E 948 430 014
BEINTZAKO



Tel: 948 456 080

Faxa: 948 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ARANO

Otsailaren lehenengo igandean ospatu dira inauteriak

Mozorroak auzoz auzo ibili ziren eskean

Kontxi KLABER

Otsailaren 3an, hila-ren lehenengo igandean ospatu dira gure herrian inauteriak. Ohitura den bezala, aste bete aurreratzen ditugu.

Neska mutilez osatzen da Mozorroen taldea. Goizean goiz Surro auzotik hasi eta Arranbide, Benta-berri eta Behoko auzoa jira ordu Herriira heltzeko eguerdia izaten dute Mozorroek. Egia esan, gose gutxi izaten da nahiz eta bazkaltzeko ordua izan, etxe gehienetan pintxoak ateratzen bai dituzte. Nekea da nagusitzen dena, izan ere etxe guztietan dantzatzeko da gu-



Etxe guztietan fandango eta arin-arin bana dantzatzeko dute mozorroek.

txienez fandango eta arin-arin bana.

Bazkal ondorean ohiko zagi dantza eskaini

zuten Mozorroek maki-lak ederki astinduz herriko lau puntutan.

Azkenik herri afari ba-

tekin bukatzen da nahi duen guztientzat, trikitiarekin edo beste batzutan bertsolariekin.

TTIPI-TTAPA

Harpidetza saria igo egingen da aurten

ttipi-ttapa

Baztan, Urdazubi eta Maierrekako ttipi-ttapako harpidedunek urteko 18 euroko harpidetza saria ordaindu beharko dute. Joan den urtetik igotera kokorra izan du harpidetza saria, Correos-ek franko kontzertatua duten bidalketei %100etik goitiko igotera ezarri baitie (aldizkari bakoitza bidaltzea 0,30 euro gostatzen da Hegoaldean). TTIPI-TTAPAK ezin du igotera hori osorik bere gain hartu. Ondorioz, dirulaguntza aski ordaintzen ez duten herrietako harpidedunek ordainduko dute.

SALDIAS

Herriko eskolari Otsonta izena jarri diote

Herriko toki-izenen artean aukeratu da

Mikel ILARREGI

Ikasturte honen hasieran eskolari izen bat ematea pentsatu zuten. Herriko ikasleek herriko eremuan dauden toki-izen guztiak bildu zituzten eta ondoren etxe guztietara banatu ziren. Ondorioz, «Otsonta» izena izan zen gehien aukeratu zena. Guztira 35 bat erantzun bildu ziren. Orain, beharrezko tramitazioa egiten ari dira Hezkuntza Departamenduaren aurrean.

menduaren aurrean.

Honekin batera, esan beharra dago «eskola txikiak» egoerari buruz aspaldian eskatutako bilerak, Hezkuntza Departamenduak etorkizunari begira zer nolako jarrerara duen jakin asmoz, oraindik ez dela egin. Azaroan, urtea bukatu aurretik bertako irakasleekin bilduko zirela hitz eman zuen zonaldeko ikuskaria den Felix Otanok.



Mikel ILARREGI

lhauteri txikiak

Eskolako seiak atera ziren joaldunek jantzita, kulunken hotsak astinduz. Espiritu txarrak uxatu ote zituzten, neguari agur esan ote zioten edo, ... zeinek daki, baina herriari buelta pare bat eman zioten zarata pixka bat ateraz eta ondoren ostatuan txokolatea hartu zuten, udalak gonbidatuta.

MALERREKA

Urteroko joan-etorriak berriro dituzte joaldunek

Eguraldi ederra lagun izan zuten iñauteriek

ttipi-ttapa

Eguraldi ederra lagun zutela, ilargi betearekin eta urtetik urtera handitzen ari den ikusle kopuruarekin egin zituzten iñautetako joan-etorriak Zubieta, Aurtiz eta Iturengo joaldun eta moztorroek. Astelehenean, urtarriaren 28an, Zubieta eta Aurtizkoek bisita egin zieten Iturengo joaldun eta moztorroekin batera, ohitura denez, karroza ikusgarriak ere izan zen, bertzeak bertze, Bin Laden Ditziloko errekan harrapatu zutela agertzen zuena. Arratsaldean, zubietarrak estalpean bildu ziren bazkaltzera.



PERTSONAIA

Dendarimeako Pedro MUTUBERRIA

«Garai batean ez zen hainbeste jende etortzen joaldunak ikustera, herrikoak bakarrik egoten ginen»

Dendarienako Pedro Mutuberriak 45 urte eman zituen iñautetan joaldun gisara ateratzen. Orain dela bost urtetik honat Zubieta-ko joaldunen gidaria da. Turuta jotzen du eta honela erakusten die joaldunei nondik nora joan behar duten. «Garai batean ez zen hainbeste jende etortzen joaldunak ikustera, herrikoak bakarrik egoten ginen. Orain, ordea,

Euskal Herri osotik etortzen dira bisitariak». Ibilbidearen erditsuan opilak banatzen dizkie joaldun guztiei, indar berri-terako. Halere, berak uste du ez dutela horren beharrik aurrera segitzeko, iñauterietan aski eta soberan jan eta edaten delakoz. Posible duen arte iñautetan lan horretan segitzea espero du. «Lehen beste herrietara gehiago ateratzen ginen» dio.

dun eta moztorroekin batera, ohitura denez, karroza ikusgarriak ere izan zen, bertzeak bertze, Bin Laden Ditziloko errekan harrapatu zutela agertzen zuena. Arratsaldean, zubietarrak estalpean bildu ziren bazkaltzera.

Asteazkenean, aurreko bi egunetako jende oldea nolabait ahazteko eta herrikoen artean iñaute giroaz gozatzeko bakoitza bere herrian gelditzen da. Bazkari eta afaritako otorduetan, besta egiteko eta azken egunetako balantzea egiteko aprobetxatzen dute. Aurtiz eta Zubietan kontuak ere egiten dituzte.

Iturenen otsailaren 2a izan zen kontuen eguna. Egundorretan ez zen joare soinurik aditu, baina eguerdian bertsolariak eta aizkolariak aritu ziren. Bazkal ondoren kontuak egiten dira eta arratsaldean besteekin segitzeko aukera izaten da dantzaldia-ekin.



Goitian, Zubietako joaldun koadrila, Herriko Ostatuaren arte hartu dute aurtengoan ere. Ezkerrean, moztorra eta joaldunak lanean.

SUNBILLA

Milaka lagun bildu zuten iñautetako karrozak

Ortiziraleko emakumeen afarian Kubako

Jaione eta Alba

Urtarileko azken asteburuan izan dira Sunbillako iñauteak, ortziralean hasi eta igandera iraino. Lehen egunean eskolako haurrak beraien moztorroak jantzita ibili ziren. Gazteak, berriz, etxe etxe puskak biltzen. Arratsaldean, Herriko Etxe estreinatuta berriaren arripetan dantzaldia izan zen. Ulibeltzak elkar-

an egindako afarian 107 emakume bildu ziren. Afalondoa sorpresa izan zen, Fuerza Latina talde kubatarrek animatu baitzuten kafearen ordua Karibeko doinuekin. Gero, Mikel Salaberriekin dantzaldia izan zen.

Larunbatean eskean segitu zuten gazteak. Arratsaldean giro eder-rra izan zen ostatueta. Fondak DJ-ak eta go-



ARGAZKIAK: FOTO MENA ETX. RAKEL GORI

arian. Ageri denez, adin guzietako joaldunek par-
tina, Aurtizko eliza bistan dutela. Eskuinean, Au-



Donamaria eta Urrotzen ere aste hondarrean egin dira

ttipl-ttapa

Malerrekako zenbait herrietan segida izanen dute iñauterietako ospakizunek.

Urrotzen joan den ortziralean hasiko ziren, Herriko Ostatuan gazteek Lorea trikitilariarekin egindako afariarekin. Larunbat goizean leku berean gosalduta eta gero etxetik etxeko eskea egin zuten. Arratsean, afaria izan zuten Onofre trikitilariarekin. Igandean ere bazkaria izan zuten Herriko Ostatuan.

Donamarian larunbat goizean Herriko Ostatuan gosaltzera bildu ondotik, puska biltzen ibili ziren auzoz auzo, Miguel Angel Agerralde akordeolariarekin. Arratsean afaria izan zuten Herriko Ostatuan eta igande eguerdian bazkaria leku berean. Arratsaldean txokolatada eskaini zitzaizkien guraso eta haurrei Herriko Ostatuan.

en ikustera

talde bat aritu zen

go-ak izan zituzten. Igandean, egun handian egin zen karroza desfilea. Aitzinetik artopila, tortilla, ardoa, salda eta gaztainak banatzen dituztenak karroak zeuden eta ondotik, gisaguzietakoak. Desfilea akitzean, zerria eta bildotsa zozketatu ziren. karrozetan parte hartu zutenak Ulibeltzak elkarrean bazkaldu zuten eta dantzaldia izan zen.



Pezetaren hileta elizkizunak eta euroaren jaiotza irudikatu zute iñauterietan eskolako neska-mutikok. Ondoan, gazteak, iñauteak hasteko gosarian. Ez da kolesterolaren beldurrik!



ARGAZKIAK: RAKEL GORI

GOIZUETA

Lau eguneko eromena heldu da

Otsailaren 10, 11, 12 eta 16an ospatuko dira aurten Iñoteak

Esteban AROTZENA

Ezin da esan aurtengo iñoteetako deus berririk antolatu denik, baina beti bezalakoak izanen direla ziurtatua dago, eta honek bereziak eta ederrak izanen direla adierazten du.

Aurreko larunbatean, 9an alegia, zer edo zer antolatze saiakerak gauzatu ez baldin badira ere, egitarau bete-betea prestatu du mozo-roen taldeak otsailaren 10, 11, 12 eta 16rako. Igandea, esate baterako, goizeko 11etatik aurrera Leitzako eta Goizuetako pilota eskola-koek eskainiko duten jaialdiekin hasiko da, bi herrietako pilotari, en-

trenatzaile eta gurasoen harremanak estutzeko balio duen ohiturarekin segituz. Leitzako iñotetan ere berdinegiten da, denak biltzen dituen bazkariarekin bukatzen delarik ekitaldia. Arratsaldeko 5etan gaztetxoek zahi-dantza hasiko da eta 7etatik 9,30etara dantzaldia izanen da Xapó taldearekin.

Astelehenean, mozo-roen koadrila base-rriz baserri dabilen bitartean, haurrak eginen dira herriko jaun eta jabe. Horrela, 5etan aterako da Guraso Elkar- teak antolatzen duen eskolako neska-mutikoen konpartsa. Eta desfilea bukatu orduko, txokola-



Hamazazpi urte bete ditu Umore Ona elkarteak eta hainbat ekitaldi antolatu

tea bero-beroa emanen zaie. Mozo-roak herri- ratzerako, berriz, dul- tzaineroen txaranga zain egonen da poteo musikatu burutu as- moz. Gaueko dantzal- diaren ardura Leire eta Itxaso trikitilarien esku egonen da.

Asteartean betikoari eutsiko zaio, hau da, goi- zeko 10etatik aurrera mozo-roen eskea eta 5etan herrian barrena

zahi-dantza. Hau buka- tutakoan mozo-ro ez- berdinez jantziko dira kale eta tabernak, ho- rrelaxe agintzen baitu aspaldiko ohiturak. Ilu- nabarrean eta gauean Trakets taldeak joko du plazan.

Sekula guzian aste- artea izan da Goizuetako iñoteetako egun na- gusia, baina gizarte- ren aldaketak direla me- dio edo, azken urteotan

ondorengo larunbatak protagonismo berezia hartu du, jende kopu- rari dagokionez behin- tzat. Egun horretan bil- tzen da mozo-roen tal- dea kontuak egitera, eta ondorengo festa ikara- garria izaten da. Aurten ere Errenteriko «Txala- parta» txaranga herrian izanen da ilunabarretik goizalderaino, eta aipa- tutako giro eder hori be- rotzen lagunduko du.

ARESO

Iñauteriak egin ziren otsailaren 1etik 3ra

Giro ederra izan zen herrian

Juana Mari SAIZAR

Aurtengo iñauteriak Leitzako eta Tolosako en- artean ospatu ziren. Otsailaren 1ean esko- lako umeek arratsalde- hasiera eman zioten jaiari. Denak armiarmaz mozo-rotuta, herriango- ra eta behera joku bat eginez ibili ziren. On- doren, merienda ederra eta gauean Lagunarte- koek afaria antolatu zu- ten elkartean. Larunbat

eta igandean, ohiko etxez etxeko eskea egin zuten. Arratsalde- z gaur dantzaldiak izan ziren. Guraso Elkar- teak antolatuta, aurtengoan Punkilandia ka- rroza prestatu zuten. Umeak, gurasoak eta lagunak kale batetik bes- tera ibili ziren.

Zergak

2002. urteko zergak %2 inguruan igo dira.



Aurten ere, haurrek mozo-ro ederrak plazaratu dituzte.

Zaborrak, familiako 52 euro ordainduko dira, saneamendua 26 euro eta ura harrigunean 32 euro. Baserrietan zabor eta saneamenduaren- gatik erdia ordainduko dute.

Udal plusbalia zehaztu da

Joan den urtean ha- si zen zerga hau ko- bratzen. Herrigunean dauden eremu eta etxe- ek balio bat zuten hiri- gintza lanak hasi baino

lehen. Orain, lan horiek burutu ondoren, balio handiagoa dutenez, zer- ga hori kobratzen du Udalak. Nafarroako Go- bernuaren baremoen arabera, tasarik txikie- na jarri dute.

LEITZA

Ihotteak ederki igaro ditugu

Eguraldia lagun ederki igaro ditugu aurtengo ihotteak ere. Aipatzeko gauza asko izan daitezke, baina batzuk edo askok igandeko festarako hartzen ditugun «lanak» aipagarrienetarikoa. Dena den, gutxiago prestatu baina egunpasa ona botatzen dutenak ere badira, baita begiratuz ongi pasatzen dutenak. Goatzeko modu ezberdinak.

Argazkiak: Mikel ILARREGI



INKESTA

Herriko Etxeko plaza kotxerik gabe?

Mikel ILARREGI

Ama baten iradokizunari jarraituz, «kotxeak plazan edo kotxerik gabeko plaza? galderari ekin diogu. Hona erantzun batzuk.

Hemen azalduakoa inkesta labur bat besterik ez da. Iritzi batzuk agertzen dira, beste asko eta asko egon daitezkeen bezala. Hala ere kezka bat badela agertu nahi da.



Jon Barriola

Asteburuetan plazan umearekin ibiltzen dena

Ez lukete plazan aparkatzen utzi behar. Gauza bat da pasatoki moduan erabiltzea eta oso bestelakoa bertan aparkatzea. Etxebizitzek aparkalekua behar dute baina jostetarako umeentzat eta gurasoentzat ere bai, plaza libre behar da. Herrian nahiko tokia bada aparkatzeko.



Pilartxo Sagastibeltza

Egunero plazara joaten den bi umeen ama

Plazan egiten den erabilerak ikusita, kotxerik gabe behar harko lukela pentsatzen dut. Plaza handia da eta agian dena itxia ez da beharrezkoa, baina udaletxeko kanpoko ikinetik Juaneneko izkinala ere egon daiteke itxia pasabidea uzteko.



Marian Lasarte

Ama eta plaza inguruko dendaria

Ama naiz baina dendaria ere bai. Ama bezala, umeek jolas dezaten plaza libre behar duela garrantzitsua dut, baina bestela negoziak errezteko zatiren bat kotxeentzat uztea ere beharrezkoa ikusten dut. Pasabide bat, Juanenetik haratago bitartean utzi behar harko litzateke.



Jone Perurena

Azkeneko hamar urtetan egunero plazara joaten den ama

Plaza libre. Kotxe asko etortzen da eta tokirik ez da gelditzen lasai egoteko. Negu partean atsaldetan, ume asko dabilenez libre behar harko luke. Udan berriz, kanpoko jende asko etortzen da, beraz, egun guztia kotxerik gabe behar harko luke orduan.



Juan Ramon Lizarraga

Plaza inguruko lurakina

Plaza handia da eta plazaren edertasuna mantentzeko, umeen arriskua gubitzeke eta jostetan aritzeko eskubidea dutelako kotxerik gabe behar harko luke. Halere, komertziantek, nahitaezkoak ditugun salgaiak eroso eskuratzeko eta bezeroak erosotasunez etor daitezkeen pasabidea eta muga jarriko nuke.



Imelda Larraz

Plaza inguruko dendaria

Plaza aparkatzeko? Kotxeak erabat ez, baina negoziak dudanez eta jendea kotxeekin ohituta dagoenez, plaza ez nuke itxi. Peatonala bihurtzea ez zaigu komeni. Kotxerik gabe plaza politagoa iruditzen zait, baina plazan sartzea ez dut gaizki ikusten.



Jabi Moreno

Plazako azokidea

Erabat idearen alde. Egun emanen den joera orokorra plazak itxeara da. Kotxeak espazio guztia hartzen ari dira eta mugatu behar da hori. Aparkatzen duten hogeita hamar kotxe horiek, beste toki batean aparkatzea ez da zakeke. Auzokideek ere beste toki batean aparkatzea dezaiegu, zerbitzuak salbu, hauentzat ordutegia.



Bixente Usabiaga

Herriko zinegotzia

Plaza libre. Plaza kotxeentzat herriko bihotza bihurtu da. Kotxeek badute ez oso urrutik aparkatzeko beste tokiren bat eta inolako traumarik gabe: festetan edo merkatu egunetan, garbi ikus daiteke. Inguruko umeek ia toki bakarra dute eta ezin dute lasai ibili. Noizbait ikasi behar dugu komunera ere kotxerik gabe joaten.

BAZTAN



Maria Gorka Urtebe

Aski xaharra da Arizkongo inauteren irudi hau, 60 urte inguru izanen ditu Garai hartan ere dotore janzten ziren arizkundarrak. Seguruenik animaleko giroa izanen zutela.

FLASH

Zuzenketa

Aitzineko aldizkarian inauteren datak eman genituen, eta huts galanta egin genuen Erratzu, Arizkun eta Elizondoko egunak jartzekoan. Gehienek dakizue bezala otsailaren 10, 11 eta 12an izanen dituzte inautiak herri hoketan, igande, astelehene eta astearte. Barkatu eragozpenak.

Mendigoizale Gazteen ateraldia

Gazte Mendigoizaleek otsailaren 24an izanen dute mendi irteera. Elizondotik atera eta Bergara, Aintziolde, Peralats, Erratzu ibilbidea egingen dute.

Baztango Mendigoizaleak

Baztango mendigoizaleek otsailaren 10ean inauteriak direla eta ez dute irteerarik egingen. Hurrengoa otsailaren 17an izanen da Alkozeroa.

Kontzertua Antxitonean

Otsailaren 15an, lanabatean Txutxin Ibáñez abeslariak kontzertua eskainiko du, Elizondoko Antxitonea Trinketean. Gauko 12etan hasiko da musika eta sarrera debalde izanen da.

Elizondoko karriketan bide seinale berriak jarri dituzte

Bisitariak nora joan jakinen dute hemendik aitzin

Rakel Goñi

Orain arte turisten bat Elizondoran allegatzen bazen, karriketan harapatzen zuen edonori galdetu behar zion jateke, kirol instalazio edo hotelen bat aurkitzeko. Hemendik aitzin lana errazagoa izanen da, herri guzira seinalez josi dutelako. Batzuek dako gehiegi dira, berteendako behar-beharrezkoak ziren. Herreria

sartu bezain laster bisitariak hotel eta jatebixen zerrenda ikusi ahal izanen du, eta herrian barrena, kirol instalazio, auzo, karrika, osasun zerbitzu eta bertze egoitza aunitzen seinaleak ikusiko ditu.

Obra gehiago errepidean

N121-Berrepidean, Iurritako Zaldubi poligo-noaren amaieran, erre-

ka bazterrean moldaketa lanak egiten ari dira. Zubiaren ondoan, lurrak kontuko dituen murrak bat egiten ari dira. Tarteka trafikoa eten behar izaten dute beraz gidariak adi ibili beharko dute. Bitartean Arraiozko sarreran lanak mar-ba ederrean segitzen dute. Hemen ere trafikoa gelditu behar izaten dute batzuetan, beraz adi ibili.



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 • 948 580939
ELIZONDO

**MERKEALDIK
OIHAL ETA
NEGUO ARROPATAN
INAUTERIETAKO TELAK**



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligon • 948 580 562 IURITA





BAZTAN

Baimenik gabeko larre erretzeek hainbat sute eragin dituzte

Haizeak eta idorteak sua areagotzen dute

Rakel Gofri

Urtarrilaren azkene-ko hamabortzaldiak su- te aunitz izan dira Baz- tango mendietan. Kon- trolik gabeko erretzeek hainbat hektarea kixka- li dituzte. Baztangoizan izan dira suerik gehie- nak eta larrienak. Ilbel- tzaren 22an Beartzunen 20 hektarea larre erre- ziren. Biharamunean iz- pegi inguruan 15 hek- tarea erre ziren, suak errepidea gurutzatu- zuen eta trafikoa moz-

tu behar izan zuten arriskuarengatik. Erra- tzun, inarbilan, bertze sutea itzali behar izan zuten Oronoz-Mugairi- ko suhiltzaileek. Abar- tan mendiaren magale- an ere kea nabarmena izan zen. Hurrengo as- tean urtarrilaren 28an, Eskizen ere suaren kon- trola galdu zuen nor- baitek, etagarra urrun- dik ikus zitezkeen. Az- pilkueta inguruetan ere urtarrilaren 29an erre usaina nabarmena izan

zen. Alkurruntzeri eta Erratzuko mendiei to- katu zitzaizen hilabete amaieran. Hainbertze suteekin azkenean ez- beharren bat gertatuko dela uste dute aunitzek. Lurra idorra dago eta azken egunetako haize boladek erretzeak arras arriskutsuak bihurtzen dituzte. Larreak erre be- har dituenak baimena eskatu behar du nahi ta nahi ez, suhiltzaileen la- guntza izanen du bai- mena eskatuz gero.j28

LANDETXEAK



Arizkungo Bozate au- zoan daude Lizardiko borda I eta II landetxeak.

Urruska, Eli- zondotik 10 kilometro dago, Bear- tzun auzo- an.



Jauregia I eta II lande- txek An- zen daude, hauek ere kalidadeko zertifikatua lortu dute.

ETNOGRAFIA



Amalurren ere elurtegi edo nebera bat dago. Al- kurruntz mendiaren ma- galean, iparraldera be- gira. Sakoneran 6 metro baino gehiago ditu eta diametroan 5 inguru. Sa- siz inguratua dago ez da batere errexa ikuste- ko. Elbeten, Autrin men- dian agertu zena garbi- tzeko asmoa dute Baz- tango Udaleko mendi- arduradunek. Amalurkoa ere zerrendan jarri be- harko dute, sasiak be- dere kendetzeko.

"Q" kalidadearen ziurtagiria 5 landetxendako

Otsailean banatuko dira Madrilan

Landetxeetako jabe- ei 1999an proposatu zi- tzaien Kalidadearen ziurtagiria lortzeko la- nean hastea. Anizko Emma Tomassone, Be- artzungo Joxepi Mihu- ra eta Bozateko Gotzo- ne Bakaikoa izan dira "Q" kalidadearen zeinua lortu dutenak.

Eguneroko lanak pa- peretan isladatu behar izan dituzte zehatz-me- hatz, laneko metodoa zehazteko. Baztango bertze landetxe batzuk lanean ari dira ziurtagi- ria lortzeko, eta ziurre- nik laster bertzeren ba- tek lortuko du "Q" ze- inua.



ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853



ZUBIRIA
MINDEGI AK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274



LARRALDEA
SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121

ZUGARRAMURDI

Janari iraunkorrak biltzeko eta behar dutenei banatzeko kutxa ezarri da elizan

Eskoletako haurrak Xorroxin Irratian aritu ziren urtarrilaren 18 eta 19an

Margari eta Koro

Urtarrilaren 24etik aintzina elizan kutxa haundi bat jarria dago janari iraunkorrak biltzeko. Nafarroako elizen artean egiten den ekimena da hau eta ematen diren janariak bildu ondotik Iruñera igortzen dira, han baita "Janarien Bankua".

Banku honetatik behar dituzten familien artean banatzen dizkiete janariak. Kanpotik gero eta jende gehiago etortzen ari denez, alpatzekoa da ere behar dituzten familia hauen artean aunitz etorkinak direla.

Eskoletako haurrak Xorroxinen

Urtarrilaren 18 eta 19an



Eskolako neska-mutikoei izigarri saio polita egin zuten urtarrilaren 18 eta 19an Xorroxin Irratian.

eskolatiko haurrak xorroxin irratitik saioa aineratu zuten. Lehenbiziko eguneko arratsal-

dean haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak aritu ziren kantu, ipuin eta as-

makizun politikak eskaintzen, eta bigarren eguneko goizean Lehen Hezkuntzako koxkorak

eta DBHko 1. eta 2. mailakoak izigarri saio polita egin zuten.

Mendi irteerak

Atxuria mendi taldeak 2001 urteko irteerak antolatu ditu. Beti bezala hilabeteko hirugarren igandean izanen dira eta irteera plazatik goizeko 8tan. Hauxe dira egiten diren ibilaldiak:

- Otsaila: Baigorriara
- Martxo: Uruñara
- Apirila: Zugarramurdi-ko itzulia
- Maiatza: Elizondora
- Ekaina: Etxalarra
- Iraila: Donibabe Lohitzunera
- Urria: Lezetako borbada
- Azaroa: Erratzura
- Abendua: Erroten itzulia

URDAZUBI

Alkerdi eta Beroberriako lezeak babesteko 27.150 euroko laguntza

Bengoetxea eraikuntza enpresak egiten ditu lanak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Herriko, Garraio eta Komunikabide Departamentuak Alkerdi eta Beroberriako lezeetan babes lanak egiteko lanak egitea onartu

du. Iruñetik ematen den laguntza 27.150,82 eurokoa da (lau milioi pezetan terdi inguru). Lanak herriko Bengoetxea S.L. eraikuntza enpresak egiten ditu eta lezeen ingurua eta ibixidu-



Lezearen ingurua eta itxidura babesteko dira lan hauekin.

ra hobetzea izanen duite helburu. Izan ere

1975ean egin zen itxidura azken aldiz eta

gaur egun arras hondatua dago.

SARA

Ihauteriak otsailaren 9 eta 10ean

Auzoz auzo eskean ibiliko dira gazteak eta Zarpantzar erreko da

Aña Mari eta Fred

Ihauteriak otsailaren 9 eta 10ean ospatuko dira. Larunbatarekin, hitzordua goizeko 8etan da Gaztetxean, mozo-
roen prestatzeko. 9etan, etxeko ibilaldia hasiko da Xahar Etxetik. Elbarrun nahiz Xarbo Erreka auzoak bisitatuak izanen dira goizean. Bazkaldu ondoren, ibilaldiak Lehen-bizkaitik segituko du eta arratsalde apalean plazarat ailegatuko dira suziri argituekin. Ondotik, poteoa abiatuko da Pleka trinketetik eta gauaz, DJ Sheb eta DJ Rá Mon Herriko Edantegian giroa ezarriko dute.

Biharamunean, mezaren ondotik, desfilea izanen da, haurrek, Zazpiak Bat dantza taldeak eta ihauteri kari muntatu mutil dantza taldeak alaitua, txistulariak eta txalapartariak lagun. Eguerdi aldean, Zarpantzarren epaiketa eta erretzea izanen da. Ondoren, ikastolaren aldeko bazkaria zerbitzatu izanen da Omordian

eta usaian bezala, oraino indar zorbait atxikiak izanen dituztenek Benetako itzulia egingen dute, Portua aldean bururatu aitzin.

Turismo Bulegoa

Urtarrilaren 23an, Turismo Bulegoko biltzar nagusia bururatu zen.

Joan den urtean 16.580 presuna ibili ziren turismo bulegotik barna, horietatik 10.688 erearotik buruila artean; 2000. urtean %9,30 gehiago. Telefono deien aldetik 4.000 kontatu dituzte. Egun batean 52 dei arte izan dituzte.

Turismo Bulegoak gure herria ezagutarazteko zortzi azoketan parte hartzen du: Parise, Nantes, Lyon, Bilbo, Bar-tzelona, Rennes eta Tolosa. Berritasunen aldetik, joan den urtean herriko bizitokien katalogo bat argitaratu zen; aurtengo, turistek pagatzen duten eguneko inportuaren prezioa karioagoa izanen da. 2002. urteko proiektua oinezko eta mendiko bizikle-



Joan den urtean Sevillatik etorri zen jendea Sarako ihauterietara. Aurtun auzo nandik!

tan ibiltzeko bidexken karta plazaratzea da.

Pilota berri

Euskal Herriko Pasaka txapelketaren finalak igandean, otsailaren 10ean, jokatu dira Pleka trinketean, goizeko 9etatik goiti. Sarako Mattin Arrieta eta Jean Jacques Elizeri final erdian galdu dute 13-8 Hazparneko Mendegi eta Goienetxeren kontra. Beraz, lehen mailakoa hazpandaren eta Baigorri eta Senperekoen artean jokatu da. Bigarren mailan, hiru burutarrak aurka baigorriarrak eta baionarrak aritu behar dira.

Bertzalde, Euskal Herriko esku huskako txapelketa ere jokatzeko ari da. Azken emaitzak, Sarako Kristof Saint Je-

an, 40; Urruñako Larzabal, 28. Ramuntxo Errandonea, 40; Billa-bonako ordezkaria, 18.

Gaztetxea

Urtarrilaren 25ean, «Etxola» gaztetxearen Biltzar Nagusia iragan da. Karia hortara, bulego guzira aldatua izan da. Florent Barnetxe "Liam" izanen da lehen-dakari eta Kristin Sorhuet "Krispin" bere ordezkari. Patrick Etxegarai "Saski" arduratuko da idazkaritzaz, Iban Duperuk lagunduko duelarik. Tomas Lafitte "Tom's" izanen da diruzain eta Antton Garat ukanen du laguntzaile. Arduradunek urteko bilduma baikorra egin dute, orotaraziz lokala osoki berritua izan dela joan den urtean, eta az-

pimarratuz besta denboran herriko jende ainitzen laguntza eta sustengua ukan dutela. Eztabaidarik ere gertatu da bilkuran, Jean Aniotz-behere auzapezak, elkarrekin maiatzaren leheneko bezperan antolatzen duen Gaupasa berriz ez egiteko nahia agertu baitu. Dena dela, Gaztetxeak espero du laster akordio bat atxemana izanen dela Gaupasa antolatzeko.

Tripotx jatea

Auzapezak eta kontseiluak erretretan diren saratar guztiak gonbidatzen dituzte otsailaren 16an, Omordian 12:30etan tripotx jatera. Bazkarira gateko izen emateko epea otsailaren 11n finkatua da Herriko Etxean.

JATETXEA
 ☎ 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO
Galarza

**MENDI
 OSTATUA**
 Santiago 25 • ☎ 948 580313
 ELIZONDO

BAZTAN
ALTZARIAK
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
 CAFÉ DE LA MAIRIE
 MAIRAN ETA VERONQUE
 SARA • TEL 0559542519

**MENDIALDE
 Jatetxea**
 AMAIUR • ☎ 948453060

AZKAIN

Hemezortzi urteko presondegi zigorra ezarri diote Aratz Gomez-i

Planako gainekaldeko 10 Hektarea garbituko dira, suteen beldurrez

Ihintza, Angela eta Eneko Aratz Gomez herri-tarrak eta Arkaitz Saez Hiriburutarrak 18 urte presondegi bildu dituzte. Sorpresa aski handia da abokatuak lan ona egin baitzuen epaketan, eta dozieran elementu makurrak bazirela agertarazi baitzuen. Epaketaren errepusta urtarilaren 24an agertu zen ortzegunarekin. Bi mutilen kondena-zioak hauek dira: «talde armatuan parte hartzea», «legez kanpoko armak edukitzea», «bortizkeriarekin ebasketa baten egiteko asmoa izatea» eta «paper faltsuen edukitzea».

Berria prentsan agertu eta biharamunean jakin zuen Aratzek, familia bere ikustera joan baitzen. Familiak dioenez, azkaindar gazteak ez zuen esperantza handirik erantzuna izan aintzin ikusiz zertan zen oraiko egoera. Halere epaiketara gorago eramanez dute. Urtarilaren 27an Aratz, Iraun



Argazki JORAJURIA

Irungo enpresa batek Larrungo mazalak garbituko ditu.

eta Arkaitzen aldeko sustengu bazkaria antolatua zen hirugarren aldikotz Elizaberrin. 200 bat pertsona bildu zen.

Suteak

Bernikitan sute handiak agertu dira Urruñako mendi mazeletan. Azkaingo eremu etarik hurbil. Duela urte batzuek landatuak izan ziren Larunen eta erexki erretzeko arriskuan dira. Herriko kontseiluak Irungo enpresa bat en-

